



euskararen berripapera

2009



Euskararen presentzia bultzatuko da Googlen

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, EITBk eta Google eta Expressive enpresek urrats garrantzitsua eman dute lankidetzan, euskarak presentzia handiagoa izan dezan Googlen.



Expressive, Eusko Jaurlaritza, Google eta EITBko ordezkariak lankidetzaren aurkezpen-ekitaldian.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Euskal Irrati Telebistaren (EITB) eta Google eta Expressive SL enpresen arteko lankidetzari esker audio, bideo eta dokumentuetan euskarazko kalitatezko bilaketak egitea bultzatuko da. Horrez gain, euskarazko edukiak eta zerbitzuak gehituko dira sarean, lehendik martxan diren zerbitzuak hobetu eta berriak abian jarriko dira.

Aurrerantzean, Google enpresa multinazionalak eskaintzen dituen hainbat zerbitzu euskaraz erabili ahal izango dira; gmail posta elektronikoa zerbitzua eta bulegotika-aplikazioak, esaterako. Googlek euskarazko 585.000 gmail kontuko ekarpena egingo du eta Euskarazko Bilatzaile Orokorra garatuko du Google Search Appliance teknologia erabilita. Bilatzaile horri esker Interneteko erabiltzaileek euskarazko edukiak modu bizkor eta eraginkorrean topatuko dituzte.

EITBk, euskarazko multimedia-dukien lehen ekoizlea den aldetik, komunikazio euskarri berrietan euskarazko edukiak eta zerbitzuak sustatu eta indartuko ditu. Gainera, euskarazko edukiak multinazional amerikararen zenbait produktutan (Youtube, Books, Maps, Earth eta Blogger) ezartzearen alde egingo du. Expressive SL

euskal enpresak, bestalde, euskara Googlen txertatzeari begira, ezartze- eta aholkularitza-lanak egingo ditu.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Informazio eta Komunikazio Teknologien esparruak euskararen normalizatorako duen garrantziaz jabetuta dago. Horregatik bideratzen ditu urtez urte gero eta diru-laguntza zabala-goak esparru horretarako, eta horregatik sustatzen ditu urtero euskarazko tresna eta aplikazio berriak gero herri-tarren eskura jartzeko. 2005-2009 legealdian 9 milioi euro inguru bideratu dira arlo horretara.

HPSko buru Patxi Baztarrikaren esanetan, «globalizazioa euskaldunontzat ez da mehatxu bat, errealitate bat baizik, erronka bat. Eta mundu berri honetan, aukera gisa ulertu, onartu eta geureganatu behar ditugu Informazio eta Komunikazio Teknologia. Teknologia horiek bikain baliatzen baditugu, irabazteko asko dauka euskarak; galtzekorik ez. Eta horretan asmatzea da gure helburua». Hala, euskara Googleko hizkuntzen artean egotea benetan jardunbide estrategikotzat jo du eta, bidenabar, zeregin horretan jarraitzeko gonbita luzatu dio enpresa amerikarrari. Horrez gain, sailburuordearen iritziz, EITBren edukiak, multimedia-produktuak eta sareak ezinbestekoak dira helburu hori erdiesteko. Azkenik, Googlen produktuak euskaraz erabiltzeko gonbita egin die herritarrei, euren esku baitago euskara erabiltzeko aukera hori baliatzea ●



BIDEGILEAK

Mikel Atxagari omenaldi hunkigarria

Donostiako Miramar Jauregian bildu zen hainbat jende Mikel Atxaga idazle, kazetari eta itzultzaileari omen egiteko.



Argozki Press


Miren Azkaratek eta Patxi Baztarrikak eman zioten euskaldun makila Mikel Atxagari.

Miren Azkarate Kultura sailburuak eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskaldun makila eman zioten Mikel Atxagari, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik esker ona adierazteko. Txalapartari eta dantzariak girotutako ekitaldian *Mikel Atxaga bidegilea* izeneko liburua aurkeztu zuten. Bertan, besteak beste, Elixabete Garmendia kazetariak prestatutako "Senezko kontalaria, hitzez eta idatziz" artikuluan euskal kazetariaren dekanotzat jo genezakeenaren bizitzaren eta obraren berri ematen du. Liburua *Bidegileak* bildumaren baitan egindakoa da, Atxaga bildumaren koordinatzailea eta zuzendaria baita 1997az geroztik. *Bidegileak* bilduman, dagoneko, euskalgintzan aitzindari izan diren 200dik gora gizon-emakumeren bizitza eta lana ezagutzera eman dira, 54 sortatan banatuta.

Omenaldian, kazetaritzan, eta oro har euskalgintzan, egindako lagun asko agurtu zituen Atxagak. Xabier Euzkitzek gidatu zuen ekitaldia eta hark irakurri zituen Atxagaren hitzak. Ondokoak izan zituen gogoa Atxagak: «Ez dut erdaraz dihardutenen aurka ezertxo ere, ez ditut gaztelania bakarrik nahi dutenen esku nahi erdal komunikabideak; erdaraz ere entzun nahi dut abertzale eta euskaltzaleen mintzoa, baina gaur euskaraz dihardutenak nahi ditut zoriondu eta esker-tu, biziki eta bereziki, zailtasunak zailtasun eta tentaldiak tentaldi, Anduk eta beste askok bezala euskarari eusten diozuen idazle, irakasle, kazetari, kantari eta gainontzeko guztioi eskerrik beroenak». Euskararekiko hartu zuen konpromisoa horrela azaldu zuen: «Gazterik hartu nuen euskaldungoaren zerbitzuan euskaraz bizi eta lan egiteko erabakia, eta ametsa egia suertatu zait. Nire esker onak ez du bukaerarik».

Elixabete Garmendiak, Atxaga *Zeruko Argiako* garaietatik ezagutzen duen kazetariak, Atxagaren izaera azaltzeko laguna zuen Xalbadorren heriotzaren pasarte gogoratu zuen: «1976ko azaroaren 8a, astelehena; ez zen giro *Zeruko Argiaren* erredakzioan. Aurreko egunean omenaldia egin zitzaion Xalbadorri Urepelen, eta bertsolariak kantatzen ari zirela Xalbadorrek azken hatsa eman zuen. Hor azaldu zen [erredakzioan] Mikel, zirt-zarteko gizona». *Zeruko Argiako* erredakzioan kopetilun ziren denak. Garmendiaren ustez, «Atxaga senezko kontalaria da, hitzez eta idatziz» ●


Mikel Atxaga, euskarari emana



Badira urte batzuk Mikel Atxaga (Urnieta, 1932) erretretan dela, baina orain dela bi urte arte eten gabe idatzi du prentsan. Atxagak idazle, kazetari eta itzultzaile lanak egin ditu bere bizitzan zehar. Diktadura garaian hainbat ezizen erabiliz idatzi behar izan zuen: Errialde, Mutiozabal, Irastortza, Iraola... Sasoi hartan legezko hiru hitzengatik gobernuak bat espetxera zezakeenean, edo aldizkari bat itxi edo multa gogorez zigortu, garai trumoiatsu haietan kazetaritza egin zuen Mikel Atxagak.

1971n *Zeruko Argian* hasi zen lanean eta 1977tik duela bi urte arte *Deia* egunkarian idatzi du. Berari zor dizkiogu, besteak beste, *Deiadarra*, *Gaztetxo*, *Ezkontza bidean* eta *Xalbador* obrak, azken hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren *Bidegileak* bildumaren baitan ●

Politikari euskaltzaleak eta bertsolariak protagonista **Bidegileak** bilduman



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak *Bidegileak* bildumako 53. eta 54. sortak osatu eta argitaratu berri ditu. Eusko Jaurlaritzak duela hogeit hamar urte inguru sortu zuen *Bidegileak* bilduma, euskalgintzan aitzindari izan diren gizon-emakume eta taldeen pentsaera, bizitza eta obra modu ulergarrian eta atseginean ezagutzera emateko. Dagoeneko kaleratu diren 54 sortetan 216 bidegileren biografiak bildu dira.

Hona hemen, 53. eta 54. sortetan jorratutako biografien nondik norakoa:

Antero Apaolaza Aranguren (Urretxu 1845- Antzuola, 1908), Jerardo Elortzak apailatua.

Farmazian lizentziatua. Bergarako alkate izan zen (1881). Euskara errazean eta jatorrean idatzitako *Patxiko Txerren* eleberria egin zuen, Truebaren *El judas de la casa* antzerkiaren euskal itzulpena.

Federiko Baraibar Zumarraga (Gasteiz, 1851-1918), Miel A. Elustondok paratutakoa.

Zuzenbidean eta Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Arabako diputatu nagusia eta Gasteizko alkatea izan zen. Idazle oparoa zen; hainbat gai landu bazituen ere, arkeologia eta hiztegi gintza alorretan egindako ikerketetan nabarmendu zen. Arabako erdaran gelditu diren euskal hitzen gordailua aztertu zuen. Diputatu nagusia zelarik, bera mintzatu zen Araban lehen aldiz euskaraz hitzaldi ofizial batean. Euskaltzain urgazlea izan zen.

Louis Dassance (Uztaritze, 1888-1976), Mixel Itzainak apailatua.

Nekazaritza-injinerutza eta Letretako ikasketak egin zituen. Uztaritzeko alkate izan zen. *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileetakoa. Euskal Herriko kirol, botanika eta historiaren lan handia egin zuen; euskaraz zein frantsesez idatzi zuen. Hainbat elkartetan ardurak izan zituen: Eskualzaleen Biltzarra elkarteko lehendakari, Ikas elkarte pedagogikoko ohorezko lehendakari eta Parisko Conseil National de Défense des Langues et Cultures Régionales-eko lehendakariorde izan zen. Euskaltzain osoa izan zen.

Julene Urzelai Aramendi (Azkoitia, 1912-Venezuela, 1983), Xabier Euzkitzek apailatua.

Autodidakta. Mitinlari suttsua. Emakume Abertzale Batzako kidea. Gerla zibila zela eta, erbesteratu beharrean izan zen: hasieran Europan; geroago, 1940an Venezuelan lekutu zen. Euskaltzalea. Venezuelatik emititzen zuen Radio Euzkadiko esataria.

Martin Treku Mattin (Ahetze, 1916-1981), Joxemari Iriondok paratutakoa.

Mattin eta Xalbador izan dira Ipar Euskal Herriko XX. mendeko bertsolariarik garrantzitsuenak. Xalbadorrekin osatu zuen bertsolaritzaen historian izan den bikote historikorik sonatuenetakoa. Mattinen bertsoak umoretsua zen, zirtolaria eta piperduna, entzuleak barrez aise jartzen zituen. Bi bertso-liburu argitaratu zituen: *Ahal dena* (1971) eta *Etxe xokotik kantari* (1981).

Justina Aldalur Iruretagoiena (Aia, 1922), Miel A. Elustondok apailatua.

Bertsozalea. Klausurako moja klaratarra. Sor Maria Jesus Agredakoak prosaz idatzitako *Mística Ciudad de Dios* liburuan oinarrituta, 1.532 bertsoz ondutako *Ama Birjiñaren bizitza* liburua osatu zuen.

Jose Migel Iztueta Lazkao Txiki (Lazkao, 1926-Donostia, 1993), Nerea Azurmendik paratutakoa.

Bertsolaria. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan txapeladuna (1964, 1965) eta txapeladunordea izan zen (1950, 1962). Euskal Herriko txapelketan ere parte hartu zuen. Txapelketetan nabarmendu arren, batez ere jaialdi, saio eta bazkalondoko bertsolaria zen. Bizi zen bitartean, bertsolariarik ezagunenetakoa; hil zenean, euskal umorearen adierazgarri bilakatu zen. Eskola zaharreko bertsolaria, umore onekoa eta bizia zen; halaber, sentimendu eta ateraldi handikoa.

Migel Arozamena (Lesaka, 1930-1976), Joxemari Iriondok apailatua.

Eskola zaharreko bertsolaria. Hitz-jario eta etorri egokiko bertsolaria zen. Kalakari trebea. Jendearen aurrean alai eta irribarretsu azaltzea gustatzen zitzaion, bereziki. Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta kanporaketetan parte hartu zuen baita txapeladun gertatu ere (1962, 1966). Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian ere esku hartu zuen zenbaitean (1962, 1965, 1967). Gai askotako bertsoak idatzi eta argitaratu zituen garaiko agerkerietan.

Bi sorta horiek baliaturik, Antero Apaolaza eta Julene Urzelai ezagutarazte aldera, Bergarako Udalak eta Azkoitiko Udalak hala eskatuta, bi biografia horien tirada gehigarriak egin dira, tokian tokiko zabalkundea egiteko asmoz.

www.euskara.euskadi.net helbidean kontsulta daitezke *Bidegileak* bilduman argitaratutako biografia guztiak ●



2008ko eta 2005-2009ko jarduera- -txostenak



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005-2009 legealdian zehar garatu beharreko lan-ildo edo konpromiso nagusiak *Hizkuntza politika aurrera begira* izeneko dokumentuan bildu zituen. HPSk urtez urteko jardueratxostenak argitaratu ditu, urte bakoitzean euskararen erabileraren erronkaren inguruan burutu diren ekimen behineneen berri emateko asmoz. Oraingoan, **2008ko jardueratxostena** argitaratu berri da. Era berean, agintaldiaren amaierara iritsita, hartutako konpromisoak betetzeko Eusko Jaurlaritzak mamitu duen hizkuntza-politikaren nondik norakoak jaso dituen **2005-2009ko jardueratxostena** plazaratu da.

Miren Azkarate Kultura sailburuaren hitzetan, lankidetzeta eta adostasuna izan dira lau urteotako hizkuntza-politikaren giltzarriak. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordea, bestalde, pozik agertu da agintaldiaren hasieran zehaztutako langintza bete izanagatik eta hartutako konpromisoaren muin-muinean zegoen ekimena, *Euskara 21* gogoeta eta eztabaida prozesua, abian jarri eta burutu izana nabarmendu du. Ukan birusa, *Lan-Hitz* programa, *Bikain* ziurtagiria, eta euskara egiaztagiri guztiak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markora egokitu izana ere azpimarratu ditu sailburuordeak.

Txosten horiek www.euskara.euskadi.net helbidean daude ikusgai ●

Euskara 21 ekimeneko argitalpenak



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak XXI. mendean garatu beharreko hizkuntza-politikaren inguruko hausnarketa eta eztabaida bultzatzeko konpromisoa hartu zuen 2005-2009 legealdian eta hori, *Euskara 21* ekimenaren bidez gauzatu da. Gogoeta eta eztabaida prozesu horrek eman dituen fruituak sei argitalpenotan jaso dira:

- *Oinarrizko Txostena*, *Euskara 21* ekimenaren abiapuntua.
- *Ekarpenak*, batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak bildu dituen.
- *Aportaciones*, batzorde-atal bereziko kideen ekarpenak bildu dituen.
- *Eztabaidarako gaiak*, hausnarketa errazte aldera prozesuan zehar jasotako ideia nagusien bilduma.
- *Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena*. Dokumentu honek, etorkizunera begira hizkuntza-politikak izango dituen lehentasunezko ildo zein abiapuntuak bildu ditu.
- *Itun berritu baterantz. Gogoeta irekiaren ondorengo txostena. Eranskinak*. Hainbat kidek *Itun berritu baterantz* dokumentuari egindako oharak eta iruzkinak dituen.

Argitalpen horiek berriki argitaratu eta www.euskara.euskadi.net helbidean daude ikusgai. *Euskara 21* ekimenaren nondik norakoen berri, aldiz, www.euskadi.net/euskara21 helbidean ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



DK-000023
100gr.ko Cyclus Print
paper birziklatuan
inprimatua